

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2018ko uztailaren 12an aurkeztuko du

Javier Téllez: *Itzal-antzerkia*

Javier Téllez: Itzal-antzerkia

- Datak: Uztailak 12–azaroak 18
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2018ko uztailak 12tik azaroak 18ra, Guggenheim Bilbao Museoa *Itzal-antzerkia* erakusketa aurkeztuko du, Javier Téllez artistaren bi lan hartzen dituena. Venezuelan jaio eta New Yorken bizi da artista, eta bideoinstalazioaren arloko izenik garrantzitsuenetakoa izan da azken hamarkadetan, zalantzarik gabe. Bigarren erakusketa da hau Film & Video aretoaren 2018ko programazioan; Guggenheim Bilbao Museoa bideoarte, bideoinstalazioa eta mugimendudun irudia lengoia artistiko gisa darabilten artelan gakoiei eskainitako gunea da hori.

Javier Téllez (Valencia, Venezuela, 1969) artistaren obra bi ardatzen inguruan egituratzen da: alde batetik, mugimendudun irudiaren historiaren inguruko gogoeta etengabea planteatzen du, baita haren ikono, protokolo sozial eta harreman-forma espezifikoaren ingurukoa ere; bestetik, normaltasun politiko eta kulturaletik at dauden talde eta komunitate baztertuak barne hartzen ditu bere ekoizpenean modu sistematikoan, hala nola, paziente psikiatrikoak, desgaituak edo errefuxiatuak. Azken hori da Film & Video aretoan aurkezten diren bi artelanetako protagonisten kasua; 2014an sortu zituen Téllezek, Zuricheko Kunsthaus-erako.

Piezetan lehena, *Bourbaki Panorama*, 35 mm-ko film mutua da, eta errefuxiatu-talde bat agertzen du, historia europarreko margolan panoramikorik garrantzitsuenetako baten inguruan biribilean ibiltzen; hain zuzen ere margolan horretatik hartzen du izena. 1881eko obra panoramiko hori modu iraunkorrean dago ikusgai Luzerna hirian, eta 87.000 soldadu frantziarrek Alpeetan barrena babes eske egindako ihesaldia kontatzen du, tropa prusiarren garaipenaren ostean; izan ere, gertaera hura Suitzaren neutraltasun ezagunaren eta harrerako herrialde izaeraren hasierako mugarriztat jotzen da. Téllezen pelikulak eszenatoki gisa baliatzen du artelan hori, zeinak, tamaina eta izaera murgiltzailea direla-medio, XIX. mendeko zinema-aurreko espiritua iradokitzen baitu. Gune horretan, pertsona talde bat —obrako protagonista eta figurante aldi berean— biribilean dabilta, historiaren begiztan harrapatuta baleude bezala. Errefuxiatuak dira denak. Haietako batek brontzezko eskultura bat darama: Alberto Giacomettiren *Eskua* (1947) da; haren bitartez, eztanda batean ebakitako beso baten ikuspegi izugarria gogora ekartzea bilatu zuen artistak. Pieza horren presentziak ateak zabaltzen dizkio hainbat irakurketari: gizarte-haustura, migratzailearen paper taldekoi eta bazterrekoa, edo asilo-guneko historia eta ondarearen gaineko ezjakintasuna. Aldi berean, pentsarazi egiten du artelanari berari buruz: hori ere objektu migratzailea da, museoa du kanpoko munduaren gatasketatik babesteko gunea, eta hain zuzen ere gatazka horiek dakarzkigute gogora Giacomettiren lanaren forma urragarriek: beso mehar eta hauskorra, hatzapar luze eta zurrinak, airean zintzilik egotea. Film-erreplika honetarako erabili den 35 mm-ko proiektzio-gailuak, proiektore erraldoiko zintaren mugimendu etengabe eta zaratatsuarekin, eta muralaren inguruko pertsonaien mugimendu zirkularrekin

batera, oihartzun belikoa du artistarentzat. Zentzu horretan, honakoa adierazi du: “Proiektoreen soinu mekanikoa ere elementu garrantzitsua da *Bourbaki Panorama* lanean, zarata horrek armak eta gerrak gogorarazten baititu”.

Pieza horrekin batera izango dugu ikusgai *Itzal-antzerkia*, erakusketari izenburua ematen diona. Zuri-beltzean filmatutako lan mutua da, 35 mm-an proiektatua hau ere, eta errefuxiatu-talde baten laguntzaz gauzatu da baita ere. Téllezekin aktore eta gidoilari gisa kolaboratu zuten pertsona horiek, eta fabulen eta eszena laburren bitartez kontaktzen dute haien bizi-ibilbidea, haien eskuak eta gorputzak soilik baliatuta; izan ere, elementu horiek bide egiten diote narrazioari. Haien kontakizunen izaera metaforikoari xehetasun esanguratsu bat gehitzen zaio: pertsona horiek, harrera-herrialdeko bizitza-sozialetik baztertuak maiz, ez dute ahotsik edo soinurik erabiltzen adierazpide gisa. Modu horretan, nabarmendu egiten da mututasuna baino gehiago, ahotsaren gabetzea den hau. Haien istorioetako bakoitzak erbesteratzearen antzina-antzinako arketipoak iradokitzen ditu: suntsipena, zapalkuntza, zentsura, miseria eta heriotza. Aurreko artelanean bezala, *Itzal-antzerkia* obran berriz ere agertzen da Giacomettiren *Eskua*, baina oraingo honetan badakigu jatorrizko bertsioa dela hori, igeltsuz egina. Horman proiektatzean itzal beltz bilakatuta, eskultura, mehatxagarria eta hauskorra izanik, narratzaile ere bihurtzen da, eta aldi berean eraldatu egiten du, profil berezi horrekin, itzal-antzerki tradizionalaren abstrakzioa eta unibertsaltasuna.

Javier Téllez. Biografia

Venezuelako Valencia hirian jaio zen Javier Téllez 1969an, baina New Yorken bizi eta bertan lan egiten du. Haren obrak islatu egiten du artistak duen interes etengabea periferiako komunitateak eta ikusezintasun egoera jakin batzuk lehen planora ekartzeko arte garaikidearen baitan; horretarako, instituzioen dinamikak, desgaitasuna eta gaixotasun mentalak nahiz bazterketa-egoerak lantzen ditu. Téllezen proiektuetan gaixotasun mentala diagnostikatutako pertsonen parte hartzen dute maiz, normaltasuna eta patologia zalantzan jartzen dituzten ikus-entzunezko instalazioen ekoizpenean. Zinematografiaren gaineko ikuspegi desberdinak konbinatuz, Téllezek elkarrizketa bat zabaltzen du, interpretazio berri bat eskaintzen duena mito klasikoaren, memoria indibidual eta kolektiboaren, eta erreferentzia historikoen inguruan.

Téllezek banakako erakusketak egin ditu honako tokietan: Memorial Art Gallery at the University of Rochester (2018); San Francisco Art Institute (2014); Kunsthaus Zürich (2014); Stedelijk Museum voor Actuele Kunst, Gante (2013); Museum of Contemporary Art Cleveland (2011); Bronx Museum of the Arts, New York (2005); eta Museo de Arte Carrillo Gil, Mexiko Hiria (2004). Taldeko erakusketa hauetan parte hartu du, besteak beste: SITE Santa Fe, NM; MoMA PS1, Long Island City; Museum Boijmans Van Beuningen, Rotterdam; Museo Tamayo, Mexiko Hiria; Museo de Bellas Artes, Caracas; Castello di Rivoli, Turin; Zentrum für Kunst und Medientechnologie, Karlsruhe, Alemania; Museum of Fine Arts, Houston; Institute of Contemporary Art, Boston; eta Renaissance Society, Chicago. Era berean, honakoetan ere egon da: *dOCUMENTA*, Kassel (2012); *Manifesta*, Trento; Sydney-ko Bienala eta Whitney-ko Bienala, New York (denak 2008an); Veneziako Bienala (2001 eta 2003); eta Yokohama-ko Trienala (2001). Halaber, Guggenheim Fellowship beka jaso zuen 1999an, eta 2016an Global Mental Health Award for Innovation in the Arts saria eman zion New Yorkeko Columbia University-k. Haren obra New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en bilduman dago.

Topaketa artistekin: Javier Téllez (uztailak 12, 18:30)

Javier Téllez eta Manuel Cirauqui, Film & Video aretoko komisarioa, artistaren obrak eta haren *Itzal-antzerkia* erakusketaz mintzatuko dira, uztailaren 12an, 18:30ean, Guggenheim Bilbao Museoko Entzungelan. Solasaldiaren ostean, mahai-ingurua izango da bertaratutakoekin.

Film & Video aretoa (103)

Bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimenduan dagoen irudiari eskainitako espazioa da Film & Video aretoa, eta Guggenheim museoetako eta beste nazioarteko bilduma batzuetako obrak hartzen ditu. 2014ko martxoan ekin zitzaion areto honetako programazioari, Christian Marclayen *Erlojua* (*The Clock*) instalazioarekin. Horren atzetik, beste asko etorri dira: Ragnar Kjartansson artista islandiarraren *Bisitariak* (*The Visitors*), eta Rineke Dijkstraren *The Crazyhouse* (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee*), Liverpool, UK; 2015ean, Kimsooja artista kontzeptualaren *Hariaren bideak* (*Thread Routes*), Shahzia Sikanderren *Paralajea* (*Parallax*), eta Ho Tzu Nyen artista singapurtarraren *Ezjakintasunaren hodeia* (*The Cloud of Unknowing*); 2016an, Eija-Liisa Ahtila artista finlandiarraren *Deikundea* (*The Annunciation – Marian Ilmestys*), Sam-Taylor Johnsonen *Hasperena* (*Sigh*), eta Fiona Tanen *Desorientatzea* (*Disorient*); eta, 2017an, Pierre Huyghe artista frantziarraren (*Izenbururik gabe*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014], baita *underground* zinemaren aitzindari izandako Ken Jacobsen *Gonbidatuak* (*The Guests*), eta Amie Siegel artistaren *Negua* (*Winter*) instalazio-performancea. 2018an, Michael Snow artistaren *Zirkuitu itxia* erakusketa aurkeztu zen.

Azaleko argazkia:

Javier Téllez

Itzal-antzerkia (*Shadow Play*), 2014

Film-instalazioa, 35 mm filmeko proiektzioa

10 min 56 s

Hauen eskaintza: artista eta Galerie Peter Kilchmann, Zurich

© Javier Téllez

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
Javier Téllez: *Itzal-antzerkia*
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoki bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Javier Téllez

Itzal-antzerkia (Shadow Play), 2014

Film-instalazioa, 35 mm filmeko proiektzioa

10 min 56 s

Hauen eskaintza: artista eta Galerie Peter Kilchmann, Zurich

© Javier Téllez



Javier Téllez

Itzal-antzerkia (Shadow Play), 2014

Film-instalazioa, 35 mm filmeko proiektzioa

10 min 56 s

Hauen eskaintza: artista eta Galerie Peter Kilchmann, Zurich

© Javier Téllez



Javier Téllez

Itzal-antzerkia (Shadow Play), 2014

Film-instalazioa, 35 mm filmeko proiektzioa

10 min 56 s

Hauen eskaintza: artista eta Galerie Peter Kilchmann, Zurich

© Javier Téllez



Javier Téllez

Bourbaki Panorama, 2014

Film-instalazioa, 35 mm-ko film-proiektzioa

13 min 47 s

Hauen eskaintza: artista eta Galerie Peter Kilchmann, Zürich

© Javier Téllez



Javier Téllez

Bourbaki Panorama, 2014

Film-instalazioa, 35 mm-ko film-proiekzioa

13 min 47 s

Hauen eskaintza: artista eta Galerie Peter Kilchmann, Zürich

© Javier Téllez



Javier Téllez

Bourbaki Panorama, 2014

Film-instalazioa, 35 mm-ko film-proiekzioa

13 min 47 s

Hauen eskaintza: artista eta Galerie Peter Kilchmann, Zürich

© Javier Téllez

